



**Ebazpena, 2017ko martxoaren 1ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdia behin-behinean esleitzen da.**

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2016ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2016-2017 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2016ko abenduaren 29ko EHAA).

Deialdi hori arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinaren gainean egon daitezenean, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrendak eta diru-laguntzen kopurua iragartzea; eta hala badagokio, diru-laguntza ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegaziook egutegiko 15 eguneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko esleipenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ebazpen hau behin betiko bihurtuko da, eta "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan argitaratuko da, Deialdiaren 8.3) atalean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 1ean.

Olatz Garamendi Landa  
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN